

## **"BEATRIZ GALINDO" DOKTORATU ONDOKO DEIALDIA (Unibertsitate Ministeritza) 2023** **DEIALDIAREN LABURPENA**

### ***Diru laguntzen ezaugarriak:***

Diru laguntza hauen xedea da karrera profesionalaren zati handi bat atzerrian egin duen talentu ikertzailea erakartzea.

Ehun laguntzatarako deialdia egin da eta unibertsitate publikoak bakarrik izan daitezke horien onuradunak. Deialdiak bi modolatitate bereizten ditu:

- **Senior modalitatea:** Gutxienez zazpi urteko esperientzia egiaztatua izatea atzerrian irakaskuntzan eta ikerketan, doktore titulua jasotzeaz geroztik. Ministeritzak emandako laguntza 65.000€/urtekoa da
- **Junior modalitatea:** Gehienez zazpi urteko esperientzia egiaztatua izatea atzerrian irakaskuntzan eta ikerketan, doktore titulua jasotzeaz geroztik. Ministeritzak emandako laguntza 35.000€/urtekoa da

UPV/EHUko ikertalde aitortuek, unibertsitate institutuek edo nortasunik gabeko erakundeek, laguntzaren eskatzaile izateko, ahalmen ekonomikoa izan beharko dute laguntzak iraungo duen lau urteetan zehar kontratuak kofinantzatzeko:

- Senior modalitatea: Gutxienez 25.000 euro/urteko.
- Junior modalitatea: Gutxienez 15.000 euro/urteko.

### ***Kontratuaren ezaugarriak:***

Kontratuak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23. artikulua araber formalizatuko dira (itzal handiko ikertzaileak) **eta 4 urteko iraupena izango dute.**

Kontratuaren xedea irakaskuntza eta ikerketa jarduerak egitea izango da.

### ***Deialdiaren tramitazioa:***

Deialdia hainbat fasetan egituratu da:

#### **UPV/EHUko BARNE FASEA:**

UPV/EHUk gehienez 5 eskari aurkez ditzake deialdi honetan eta gehinez 3 pertsoana proposatu daitezke eskari bakoitzeko. UPV/EHUko ikertalde aitortu, unibertsitate institutu eta nortasun juridikorik gabeko entitateek aurkezten dituzten interes adieazpenetatik Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) egiten duen hautaketan oinarrituta prestatuko da eskarien azken proposamena.

"Adierazpenak" nola aurkeztu jakiteko, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunera jo eta "Interes adierazpenak aurkezteko jarraibideak" agirian kontsulta daiteke.

**"Adierazpenak" aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 18an amaituko da 13:30etan.** IGBBk ebaluatuko ditu aurkeztutako "Adierazpenak" eta haietatik 5 hautatuko ditu.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabakiaren berri emango die haien "Adierazpenak" aukeratuak izan diren ikertzaile nagusiei, eskariko atal guztiak bete ditzaten eta, hala, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskaria aurkez dezaten. **Inprimakiak osatzeko eta bidaltzeko epea 2024ko urtarrilaren 25ean 13:30etan amaituko da.**

**Bidali beharreko inprimakiak honakoak dira:**

## I. UNIBERTSITATEAREN INGURUAN

Unibertsitatearen datuei dagokienez, honako hauek erantsi behar dira:

- Irakaskuntza-premiaren proiektua (5.3b artikulua).
- Ikerketa-premiaren eta unibertsitatearen ezagutzaren transferentziaren proiektua (5.3c artikulua).
- Hautatutako pertsona integratzeko prozesua (5.3d artikulua).
- Unibertsitatean lortu nahi den eragina (5.3e artikulua).

Fitxategi bakoitza PDF formatuan igoko da, bakoitzak **gaztelaniazko eta ingelesezko** bertsioa barne, eta hizkuntza bakoitzeko gehienez 5 orrialdeko luzapena izan beharko du. "Times New Roman" iturria erabiliko da, 12 puntukoa testuan eta 10 puntukoa orri-oineko oharretan. Lerroartea sinplea izango da, 2,5 cm-ko ertz horizontal eta bertikalekin.

## 2. HAUTAGAIEI BURUZ

Hautagaien dagokienez, honako hauek erantsi behar dira:

- Hautagaien CVA, FECYT formatuan, **ingelesez eta gaztelaniaz**; gehienez ere 4 orrialde hizkuntza bakoitzeko.
- Atzerriko erakundearekiko lotura egiaztatzen duen dokumentazioa.

Memoria (5.3.a artikulua), hiru zatitan banatua. Zati bakoitzak **gaztelaniazko eta ingelesezko** bertsioa izango du, eta azalpen hau eman beharko du:

- Irakaskuntza-proiektua.
- Ikerketa-proiektua eta ezagutzaren transferentzia.
- Izangaiaren prestakuntzan, enplegarritasunean edo ibilbide akademiko eta profesionalean duen eragina.

Azken hiru dokumentu horiek, berriz ere PDF formatuan, gehienez 5 orrialde izango dituzte hizkuntza bakoitzeko.

## 1. FASEA: PLAZEN EBALUAZIOA

Unibertsitateen idazkari nagusiak izendatutako nazioarteko adituek ebaluatuko dituzte unibertsitateek aurkeztutako eskariak. Fase honetan, eskari horiek onartu edo ukatu daitezke.

## 2. FASEA: HAUTAGAIEN EBALUAZIOA

Nazioarteko aditu hauek unibertsitateak aurkeztutako hautagaiak ebaluatuko ditu, eskaera aurkezteko unean unibertsitateak proposatutako hautagai-zerrenden artean. Unibertsitateek eskaera bakoitzeko gehienez hiru pertsona proposatu ahal izango dituzte.

Ematea argitaratu ondoren, kofinantziazioan parte hartzeko konpromisoa hartu dutenek, hau da, ikertalde aitortuek (Eusko Jaurlaritzaren edo UPV/EHUren deialdiak), UPV/EHUko unibertsitate

institutuek edo nortasunik gabeko entitateek ezin izango diote uko egin ebaluaziorako adituek hautatutako pertsona hartzeari, ezta horren ordeztu beste pertsona bat proposatu ere.

Plazak hutsik ere gera daitezke, ezein ikertzailek ez duelako eskaririk aurkeztu edo eskaria aurkeztu dutenek ez dutelako lortu deialdian eskatutako gutxieneko nota.

**Harremanetarako helbidea:**

[convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

**Informazio gehiago:**

<https://www.universidades.gob.es/convocatoria-beatriz-galindo-2023/>